GASTEIZKO ERIZAINTZAKO UNIBERTSITATE ESKOLA
ESCUELA UNIVERSITARIA DE ENFERMERÍA DE VITORIA-GASTEIZ

2026/2027 ikasturtea

ZENTROAREN ARAUDIA GRADU AMAIERAKO LANARI BURUZ

GRADU AMAIERAKO LANEN BATZORDEAK EGINA ETA ONETSIA

Osakidetza

EHU

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

Aurkibidea

1. SARRERA 3
2. GRAL-AREN IZAERA 3
3. MATRIKULA ETA DEIALDIAK 4
4. LANAREN GAIA AUKERATZEA ETA LANAREN PROPOSAMENAREN AURKEZPENA 5
5. GRAL-AREN ZUZENDARIA 5
6. EBALUAZIO-EPAIMAHAIA 5
7. AURKEZPENA ETA DEFENTSA 5
8. EBALUAZIOA ETA KALIFIKAZIOA 7
9. GRADU AMAIERAKO LANAREN BATZORDEA 8

1. SARRERA

Erizaintzako Graduko ikasketa-planak Gradu Amaierako Lana (GrAL) izeneko irakasgai batekin amaitzen da. Dokumentu honen edukia indarrean dagoen legerian oinarrituta dago:

- Estatu-mailan: 822/2021 Errege Dekretuak, irailaren 28koak, zeinak unibertsitate-ikasketa ofizialen antolaketa ezartzen baituen, III. kapituluan ezartzen ditu GrALaren baldintzak.
- Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHU) mailan: UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAN GRADU AMAIERAKO LANA EGIN ETA DEFENDATZEARI BURUZKO ARAUTEGIA, 2023ko abenduaren 14ko Gobernu Kontseiluan onartua (2024ko apirilaren 10eko EHAA).

Araudi hori informazio orokorra aurkezteko egin da, eta Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolaren jarraibide espezifikoak jasotzen ditu, GrALaren administrazio-izapidetzeari, hura egiteari, defendatzeari eta kalifikazioari buruzkoak. Araudi honen edukiaren osagarri dira, hain zuzen, EHUren barruan indarrean dauden araudi eta prozedura guztiak.

2. GRAL-AREN IZAERA

GrALa derrigorrezko irakasgaia da Erizaintzako Graduko titulua lortzeko. 4. ikasturtean zehar egiten da, eta 6 ECTS kredituko irakastorduak ditu.

GrALa ikasle bakoitzak egin beharreko proiektu edo lan indibidual bat da, zuzendari batek gainbegiratuta. Lan horretan, jasotako prestakuntza-edukiak integratu eta garatuko dira, bai eta Graduko irakaskuntza-aldian eskuratutako gaitasunak, konpetentziak eta trebetasunak ere. Halaber, GrALa tituluari lotutako zeharkako gaitasunak eta gaitasun espezifikoak integratzera bideratu behar da, eta baita norbere ikasketa-arloko datu esanguratsuak bilatu, kudeatu, antolatu eta interpretatzeko gaitasuna lortzera ere, gai sozial, zientifiko, teknologiko edo etiko esanguratsuen gaineko gogoeta kontuan hartzen duten irizpideak emateko, eta pentsamendu eta judizio kritiko, logiko eta sortzailea garatzeko. Era berean, arreta berezia jarri beharko da diziplina bakoitzak jasangarritasunari eta balio demokratikoei eta bizikidetza-balioei egin diezaiekeen ekarpenean.

Zentroek zainduko dute Gradu Amaierako Lanak EHUko hezkuntza-ereduaren arabera egiten direla. Ildo horretan, erakundeek (sektore publikoa, sektore pribatua, hirugarren sektorea eta GGKEak) sustatutako benetako beharrei edo erronkei buruzko Gradu Amaierako Lanak egitea sustatuko dute, eta arreta berezia emango diete gizarte-erronkei eta jasangarritasunaren alderdi guztiei. Era berean, EHUagenda 2030arekin bat datozen Gradu Amaierako Lanak egitea sustatuko dute, eta lan-esparru horien berri emango dute tituluetako irakasleen eta ikasleen artean.

Gradu Amaierako Lanak originala izan behar du; hau da, dokumentu berria izan behar du, ikasleak berak egindakoa, eta irakurketa zabal batean oinarritutakoa, Erizaintzako praktikara bideratutako gai bat ongi ulertzen dela erakusten duena. Ikuspegi horretan oinarrituta, gradu amaierako bi lan-mota planteatzen dira:

- **Literaturaren berrikuspen kritikoa:** Literaturaren berrikuspen sakonean datza. Ikaslea bakoitzak planteatu dituen interes profesionaleko galderei erantzun behar die, bere praktika klinikoari eta/edo esperientzia pertsonalari buruz hausnartzean sortutakoak. Ikerketa-lan enpirikoetan, galdera horiei erantzuten zaie datuak zuzenean bilatuz biztanleriaren subjektu edo elementuetan; kasu honetan, aldiz, ikasleak dagoeneko idatzita dagoen literaturan bilatu behar ditu erantzunak.
- **Hezkuntzako esku-hartzeko proiektua:** Lan honetan, baita ere, ikasle bakoitzak interes-arloko literatura berrikusi beharko du. Hala ere, lanaren ardatza izango da Erizaintzaren edozein esparrutan hezkuntzako esku-hartzeko proiektu bat egitea (osasunerako hezkuntza-programa, profesionalentzako hezkuntza-proiektua...).

Lan-mota bakoitzak berariazko gida bat izango du, eta ikasleak kontsultatu egin beharko du.

GrALa Jabetza Intelektualari buruzko Legeak babestutako lana da. Ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideen titulartasuna eskubide horiek gauzatu dituenari egokituko zaio. Plagio-politika honako honetan oinarrituko da: “Protokoloa, upv/ehu-ko ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragozteari eta etika akademikoari buruzkoa.”

Euskal Herriko Unibertsitateak “Adimen Artifizialaren erabileraren printzipioak” deskribatu ditu, eta horiek GrALa prestatzeko eta idazteko aplikatuko dira.

3. MATRIKULA ETA DEIALDIAK

GrALaren matrikula Unibertsitateak ezarritako matrikula-epe orokorraren barruan egingo da. Horretarako, esleituta dituen kredituen arabera dagozkion prezio publikoak ordaindu beharko ditu ikasleak, eta GrALaren defentsa egin ahal izateko eskatzen diren baldintzak bete beharko dira, araudi honetan ezarritakoaren arabera.

Nolanahi ere, GrALaren matrikula formalizatzeko, beharrezkoa izango da ikasketa-plana amaitzeko eskatzen diren irakasgai guztiak gainditua edo matrikulatuta edukitzea.

GrALaren matrikularako aukeratutako hizkuntzak baldintzatuko ditu hura egitea eta lanaren defentsa. Matrikulak, ikasturte bakoitzean, bi deialdi ofizialetarako eskubidea emango du, zentroaren webgunean argitaratutako egutegi akademikoan ezarritakoarekin bat etorriz. Ikasleek ikasketa-amaierako deialdiari heldu ahalko diote, Graduko Ikasketen Kudeaketarako Arautegian aurreikusitako baldintzetan, betiere bertan ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Ikasketen amaierako deialdian parte hartzen duen ikasleak otsailean edo uztailean defendatuko du bere GrALa.

4. LANAREN GAIA AUKERATZEA ETA LANAREN PROPOSAMENAREN AURKEZPENA

Ikasleek uztailan aukeratuko dute GrALaren gaia, matrikula egin eta hurrengo egunean, Gasteizko Erizaintza Unibertsitate Eskolako idazkaritzak aldez aurretik posta elektronikoz bidaliko dituen argibideei jarraituz.

Ikasturtearen hasieran, eGelan eskuragarri egongo den data gakoen agirian adierazitako datan, ikasleek proposamen bat aurkeztuko dute, ikuspegi teoriko-praktikotik behar bezala justifikatua eta graduari lotutako gaitasunekin bat datorrena. Proporamen honek ondorengo alderdiak jasoko ditu:

- Lanaren izenburua.
- Lan-mota.
- Lanaren helburua.
- Marko kontzeptual laburra eta justifikazioa.
- Proposamenaren bideragarritasuna.

5. GRAL-AREN ZUZENDARIA

Dagokion graduan irakasten duen sail bateko irakasleek edo zentroari atxikitako irakasle batek zuzendu behar dute GrALa. Pertsona batek baino gehiagok zuzendu ahalko dute GrALa. Lana entregatu ondoren, zuzendariak idatzizko txosten bat egin beharko du defentsa baino lehen. Ikasle bakoitzari eta epaimahaiari bidaliko die. Txosten hori ikasle bakoitzaren espedientean gordeko da.

Zuzendariak lanaren garrantzi etikoa baloratuko du, izan ditzakeen inplikazioak ezartzeko. Era berean, ikasle bakoitzari lanaren ezaugarriak azalduko dizkio, lanaren garapenean bideratuko du eta ezarritako helburuak betetzen direla zainduko du.

Zuzendariak aholkuak eman beharko dizkio egitura definitzean, iturri egokiak hautatzean eta horiek behar bezala erreferentziatzean, lana idaztean eta epaimahaiaren aurreko aurkezpena prestatzean.

6. EBALUAZIO-EPAIMAHAIA

Ebaluazio-epaimahaiak Gradu Amaierako Lanen Batzordeak ezartzen duen moduan eratuko dira, matrikulatutako ikasle kopurua kontuan hartuta. Konfigurazio horrek bermatu beharko du Ebaluazio-epaimahaiak bi hizkuntza ofizialetan daudela. Epaimahai bakoitzak hiru kide eta ordezko bat izango ditu, guztiak ere gradu-titulua ematen duen zentroko irakasleak direla. Epaimahai bakoitzean Presidente bat, Batzordekide bat eta Idazkari bat egongo dira, irakaskuntza- kategoriaren eta antzinatasunaren arabera ordenatuta. Epaimahaiko ekintza guztietan rol horiekin jardungo dute.

7. AURKEZPENA ETA DEFENTSA

GrALa Graduko azken mailan defendatu eta ebaluatuko da, ikaslea ikasketa-planeko gainerako irakasgai guztietan matrikulatu ostean. Gradu Amaierako Lanek irudi korporatiboa eta hizkuntza inklusiboa erabili eta genero-ikuspegia kontuan hartu beharko dute; horretarako, zuzendariaren laguntza izango dute.

Gradu Amaierako Lan guztiek egindako lanari buruzko gogoeta bat izango dute, printzipio eta balio demokratikoak eta Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) kontuan hartuta egindakoa. Gogoeta horretan, GrALak GJHak osatzen dituzten balioekin eta lan-esparruarekin duen lotura aztertuko dira, edo ikuspegi kritikoa planteatuko da horien aurrean.

Gogoetak arreta berezia jarri ahal izango du honako alderdi hauetan:

- Giza eskubideekiko, oinarrizko eskubideekiko eta balio demokratikoekiko errespetua.
- Genero-berdintasunarekiko errespetua; tratu-berdintasunaren printzipioarekiko errespetua; eta jaiotza, jatorri nazional edo etniko, erlijio, sinesmen edo iritzi, adin, desgaitasun, sexu-orientazio, genero-identitate edo -adierazpen, sexu-ezaugarri, gaixotasun, egoera sozioekonomiko edo beste edozein egoera edo egoera pertsonal edo soziala dela-eta bereizkeriarik ez jasateko printzipioarekiko errespetua.
- Irisgarritasun unibertsalaren eta pertsona guztientzako diseinuaren printzipioekiko errespetua.
- Iraunkortasunaren eta klima-aldaketaren tratamendua.

Gogoetak 200 hitz izango ditu, gutxienez, eta atal espezifiko gisa sartuko da lanean. 822/2021 Errege Dekretuan aipatutako arau-erreferentziekin batera, EHUagenda 2030 erabili ahal izango da gure unibertsitatearen erreferentzia-esparru espezifiko gisa. Horrez gain, ikasleak lanaren erreferentziazko GJHak emango ditu unibertsitateak edo zentroak antolatutako sistemen bidez.

Defentsa egin ahal izateko, ezinbestekoa da ikasleek, argitaratutako datetan, behin betiko GrALaren PDFa eGelara igotzea, zuzendariari posta elektronikoz bidaltzea eta GAURren bitartez defentsaren eskaera egitea. Ondoren, zuzendariak txosten bat egingo du eta defentsa-eskaera baliozkotuko du.

GrALaren defentsa publikoa da, eta ikasle bakoitzak modu presentzialean egin beharko du. GrALa egiteko, aurkezteko eta defendatzeko Gradua ikasteko erabili diren hizkuntzetako edozein erabili ahalko da, titulua egiaztatzeko memorian ezarritakoaren arabera. Nolanahi ere, GrALa Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egiteko eta defendatzeko eskubidea bermatuko da, betiere matrikulan hala adierazi bada.

Ikasle bakoitzak gehienez 20 minutu izango ditu defentsarako. Denbora horretan, bere GrALren helburuak, metodologia, edukia eta ondorioak azaldu beharko ditu. Ondoren, Epaimahaiko kideek egin ditzaketen galderei, argitze-eskaerei, oharrei eta iradokizunei erantzungo die, hori guztia 30 minutuko gehienezko denboran. . Ikasle bakoitzak defentsa grabatzea eskatu ahal izango du Graduko titulu ofizialetako Ikasleen Ebaluaziorako Arautegiaren 14. artikuluaren arabera (EHUko Gobernu Kontseiluko 2016ko abenduaren 15eko ERABAKIA, 2017ko martxoaren 13an argitaratua EHAAn eta ondorengo aldaketak).

8. EBALUAZIOA ETA KALIFIKAZIOA

Ikaslearen azalpena egin ondoren, eta zuzendariak egindako txostena ikusi ondoren, Epaimahaiak dagokion kalifikazioari buruz eztabaidatuko du, GrALa egiteko gida orokorran argitaratutako ebaluazio-irizpideen arabera eta titulua egiaztatzeko memorian ezarritakoaren arabera.

Kalifikazioa "Gutxiegi" izanez gero, Epaimahaiak txosten bat helaraziko dio ikasleari, lana eta bere ebaluazioa hobetzeko gomendio egokiekin. Era berean, txosten horren kopia bat GrALren zuzendariari bidaliko zaio.

Kalifikazioa 0tik 10era bitarteko zenbakizko eskala honen arabera emango da, dezimal bat adierazita, eta dagokion kalifikazio kualitatiboa gehituko zaio:

Ez aurkeztua (EA)
0 - 4,9: Gutxiegi (G)
5,0 - 6,9: Gainditua (GA)
7,0 - 8,9: Oso Ongi (OO)
9,0 - 10: Bikain (BK)

GrALaren defentsa eskatuz gero, lan hori dagokion auzitegian aurkeztu beharko da. Behar bezala justifikatutako arrazoirik gabe epaimahaiaren aurreko defentsara aurkezten ez bada, haren kalifikazioa "Gutxiegi" izango da. GrALa defendatzeko eskaerarik egiten ez bada, dagokion deialdian ez aurkeztutzat joko da.

"Ohorezko matrikula" aipamena defentsa-aldi bakoitza amaitu ondoren eman ahal izango da. Zehazki, gehienez ere 9,0 edo gehiagoko kalifikazioa lortu duten ikasleen % 5ari emango zaio. "Ohorezko matrikula" izateko hautagaiak Epaimahaiak proposatuko dizkio GrALaren arduradunari.

GrALaren amaierako kalifikazioen berrikuspena edo horien aurkako erreklamazioa Unibertsitateko ebaluazio-arloko Araudian aurreikusitakoarekin bat etorriz egingo dira. Kasu horretan, hala ere, Epaimahai bat denez, ebaluazioaren berrikuspena, lehen batean, Epaimahaiak berak egingo du eta, ondoren, Zentroaren Erreklamazioetarako Batzordeak ebatziko du. Ebazpen horren aurka errekurtsoa jarri ahalko da Unibertsitatearen Errektoretzan, gora jotzeko errekurtsoaren bidez.

Artikulu honetako aurreko puntuetan ezarritako guztirako, Gradu Amaierako Lanaren Irakaskuntza- gidako ebaluazio-atalean ezarritakoa aplikatuko da.

9. GRADU AMAIERAKO LANAREN BATZORDEA

GrALaren Batzordea titulazioaren Zuzendaritzak irakasle-taldearen eta administrazio-langileen artean izendatutako 7 kidek osatzen dute.

Hauek izango dira Batzordearen eginkizunak:

- Egin beharreko lan-motak eta ebaluaziorako irizpideak onestea.
- Ikastetxeko GrALen araudia egitea eta onestea.
- Gradu amaierako lanaren jarraipen-kronograma baliozkotzea.
- GrALa hautatzeko estrategiak proposatzea.
- Orientazioko/prestakuntzako, jarraipeneko eta ebaluazioko jarduerak onartzea, irakasgaiaren arduradunak proposatuta.
- Irakasgaiaren prozesua eta emaitzak ebaluatzea.
- Gradu Amaierako Lanaren prozedura kudeatzea.